



**Arartekoaren 2013ko urriaren 15eko ebazpena. Horren bidez Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari gomendatzen zaio berriro azter dezala benetako bizilekuaren baldintza galdu izanagatik Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bat suntsiaraztea.**

### Aurrekariak

2012ko abenduaren 14an, (...) jaunak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) suntsiarazi izanagatik sustaturako kexa bat izapidetzea onartu zen.

Erreklamaziogileak azaldu zigunez, abenduaren 10ean bere Lanbideren bulegora joan zen, Vitoria-Gasteizko (...) auzoan, agiri batzuk entregatzera. Han bertan ahoz jakinarazi zioten prestazioa eten egin zela erroldan etena agertzen zelako. Horregatik, hilaren 11an *Zuzenean* zerbitzuaren bidez alegazio-idazki bat aurkeztu zuen, eta horrekin batera errolda-agiria aurkeztu zuen. Bertan, 2006ko abenduaz geroztik etenik gabe erroldatuta dagoela ageri zen.

Abenduaren 21ean Arartekoak informazio-eskaria bidali zion Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari. Bereziki etendurako eta ebazpen-etendurako prozeduraren hasiera jakinarazteko idazkiak bidaltzeari buruz eskatu zen informazioa, errolda-agiriak dioena eta autonomia erkidegoko erakundeak alegatzen duen kausa kontrakoak izango lirakeelako.

2013ko maiatzaren 3an erantzuna jaso zen. Lanbideak azaldu zigunez, etenduraren arazoia da bere helbidean benetan bizitzeari utzi ziola, 2010eko urriaren 28tik azaroaren 30era arte atzerrira irten zelako, eta agiri jakin batzuk aurkeztu ez zituelako. Ustez bere helbidean benetan bizi izateari uzteari dagokionez, zera adierazi zitzaigun: *"Aldundiari egokituko zitzaion, jada, gertakari horregatik etendura"*. Halaber, behar ez bezala hartutako zenbatekoengatik 12495,06€-ko zorra sortu zela aipatu zen. Azkenik, bere helbidean benetan bizitzeari uzteagatik DBE suntsiarazteko proposamena zegoela azaldu ziguten.

Espedientearen alderdi batzuk behar bezain argi geratu ez zirela uste genuenez, maiatzaren 10ean informazioa eskatzeko beste idazki bat bidali zen. Idazki hartan suntsiarazteko kausa horregatik kezkatuta geundela azaldu genuen, legezko inolako oinarririk ez zuelako. Kasu honetan, gainera, helbidean benetan bizitzeari utzi zitzaionean, Lanbideak ez zeukan eskumenik DBE kudeatzeko, hau da, foru aldundiaren ebazpen bat berrikusten ariko zen, erakunde haren ustez, antza, ez zegoelako inolako arau-hausterik, eta ondorioz, eskubide baten irizpide murriztailea atzerako eraginez aplikatzen ari zen. Gorago transkribatu zen bezala, hori adierazita geratzen da esaldi honekin: *Aldundiari egokituko zitzaion, jada, gertakari horregatik etendura*. Gainera, informazioa eskatu genuen erreklamaziogileari entzunaldi-izapiderako deialdia egiteko jarraitutako izapideen inguruan, bai prestazioa eteteko, bai suntsiarazteko. Halaber, 147/2010 Dekretuaren VI. kapituluak agintzen duenaren arabera behar ez bezala kobratutako kopuruak erreklamatzeko espedientea hasi al zen jakin nahi izan genuen.



Azkenik, abuztuaren 16an erantzuna bidali zen. Erantzun horretan azaldu zigutenez, etendurako prozeduraren hasiera jakinarazten saiatu ziren, baina ezinezkoa izan zenez, etendura EHAren bidez argitaratu zen 2012ko irailean. Halaber, azaldu zigutenez, martxoaren 22an suntsiarazteko agindu zen, etendura bi egoteagatik. Ebazpen hori apirilaren 26an jakinarazi zen. Erantzun-idazkiak dioenez, *"Eten horren prozeduran, jakin genuen interesduna bere sorterrian egon zela 2010eko urriaren 28tik 2010eko azaroaren 30era arte. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen, Gizarteratzeko eta Diru Sarrera Bermatzekoaren, 16) artikuluan oinarrituta Lanbidek ezarritako irizpideen arabera (azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez aldatu zen lege hori), Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo 30 egun baino gehiago igarotzeak benetako bizilekua galtzea dakar."*

Lehenengo idazkiak diotenaren aurka, bigarren idazki horrek dio iraukitzearen kausa etendura bi izan zirela, baina ez da aipatzen zein izan den lehenengo etendura-prozedura, eta horrenbestez, ez dakigu ezer ere prozedura horri buruz.

Behar ez bezala kobratutako kopuruei dagokienez, jakinarazi zaigu ez dela hasi inolako erreklamazio-prozedurarik.

Azkenik, azaltzen zaigunez, foru aldundiaren berrikuspenari dagokionez, *"Eskabidearen aurreko hiru urteak izan ditugu kontuan. Alde horretatik, Lanbidek egokitzat jo zuen irizpide hori aplikatzea aipatutako artikulua hori oinarri hartuta"*, gure ustez, 18/2008 Legearen 16b) artikulua aipatuz.

### Gogoetak

18/2008 legearen 16b) artikulua hauxe dio: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen titular izan ahalko dira, lege honetan errentaren modalitateetako bakoitzerako aurrekusten diren baldintzetan, honako baldintza hauek biltzen dituztenak:(...) Eskabidea aurkezteko unean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea, eta eskabidea egin baino urtebete lehenagotik, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon izana eta benetan bertan bizi izana. Aurretiazko gutxienerako epea betetzen bada, baina hiru urtean erroldatuta egotera iristen ez bada, gutxienez bost urteko jardura laboral ordaindua egiaztatu beharko da, bizitza laboralaren agiri bidez, salbu eta pentsio publiko bat jasotzen duten edo etxean tratu txarren biktima izan diren pertsonen kasuan. Gutxienerako epe hori bete ezean, eskatzaileak aurreko hamar urteen barruan bost urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana izan beharko du"*.

Hau da, manu horrek ez ditu aipatzen benetako bizilekua zehazteko jarraitu beharreko irizpideak, eta ez du ezer ere aipatzen DBErako eskubidearen titularrek eskaria baino lehenengoko hiru urteetan zeukaten egoera kontuan hartzeari buruz.



Lanbideri askotan adierazi diogunez, erakunde honetakook uste dugu udalerritik kanpo hilabete baino gehiagoan egoteak ez duela esan nahi helbide batean benetan bizitzeari utzi zaionik. Erroldan inskribatuta egotea helbide horretan bizi izatearen *iuris tantum* presuntzioa da, eta baliteke presuntzio hor bertan behera geratzea bizilekua aldatu dela adierazten duten zantzu nahikoak daudenean.

Erreklamaziogilea bere herrian egon zeneko aldian, erroldan inskribatuta jarraitu zuen, bere familiako gainerako kideekin batera. Hau da, dirudienez argi dago bere asmoa erroldatuta agertzen zen helbidean bizi izaten jarraitzea zela, eta ez bere bizilekua jaioterrira aldatzea. Garrantzitsua da kontuan hartzea benetako bizilekua galtzen dela bizileku hori aldatzen denean: bizilekua aldatu ez bada –kasu honetan gertatu den bezala–, bizilekua ez da galdu.

Gure ustez garrantzitsua da ahotara ekartzea Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitza eta lurzoruaren alorreko finantza-neurriei buruzko 39/2008 Dekretuak egiazko bizilekuari buruz dioena. Honakoa dio 18.4 artikulua: *“Kasu guztietan, erroldatuta egoteaz gain, ezinbesteko baldintza izango da bertan benetan bizi izatea. Hala, kontrako frogarik ezean, erroldako etxebizitza joko da egiazko bizilekutzat. Ondorio hauetarako, egiazko bizilekutzat joko da Dekretu honen 2.2 artikuluan ezartzen den ohiko bizilekuaren kontzeptua”*. 2.2 artikulua, bere aldetik, honako hau dio: *“(…)Ohiko bizileku iraunkortzat joko da okupatzaileen etxebizitza-premia zuzenean eta berehala asebetetzen dituen, eta, gainera, legezko bizilekua dena, eskubideez baliatzeko eta obligazioak betetzeko lekua delako. Nolanahi ere, berriazko kontrako araurik ezean, 3 hilabete baino gehiagotan jarraian hutsik dagoen etxebizitza bat ohiko bizileku izateari utzi diola pentsatuko da, etxebizitzak ohiko bizileku iraunkorra izaten jarraitzen duela arrazoituta dagoenean izan ezik”*.

Beste alde batetik, Auzitegi Gorenaren 2009ko azaroaren 11k dioenez, bizilekuaren kontzeptua elementu bik osatzen dute; laugarren zuzenbide-oinarrian honela definitzen da: *“Aurrekoa gorabehera, komeni da argi uztea “bizilekuaren” kontzeptua eta horren norainokoa. Batetik, osagai espiritual bat eskatzen du, leku jakin batean bizitzeko “asmoa”. Bestetik, osagai material bat behar da “egiazko bizilekua”. 1. zenbakiko Salaren auzi honi buruzko doktrinak zalantza egin du osagai subjektiboari ala objektiboari garrantzia ematearen artean. 1978ko legegilearen ustez, zerga arloan ez dago zalantzarik: osagai garrantzitsua osagai objektiboa da. Seigarren artikulua horregatik aipatzen du “egonaldiaren” osagai objektiboa, bizilekua definitzen duen bereizgarri gisa. Bigarren idatz-zatiak orobat ezartzen du bizileku-presuntzio bat, baldin eta ez-egotea gertatzen den kasuetan ondoriozta badaiteke ez-egotea ez dela hiru urtetik gora luzatuko (horren ondorioz uste izan daiteke badela “egoteko asmo bat”)*.

Transkribatutako testua, berriaz, ohiko bizilekuari buruzkoa da, zerga-egoitza zehazte aldera, baina argi dago zein irizpide orokorri jarraitu zaion: egiazko bizilekua izateak leku jakin batean bizi izatea dakar, eta bertan eguneroko jarduerak egitea, eta halaber, leku hori ohiko bizileku bihurtzeko gogoia (hilabete eta egun biko familia bisitatzea joateak, zentzuzkoa denez, ez du esan nahi gogoia aurkakoa denik).



Osagarri materialarekin (*corpus*) eta espiritualarekin (*animus*) batera, kontuan hartu behar da denboraren joan-etorriak egiazko bizilekuaren auziari dagokionez izan dezakeen eragina. Auzi hori Auzitegi Gorenaren 2012ko urriaren 18ko epaian –Lan Arloko Sala– finkatzen da. Epai horren hirugarren zuzenbide-oinarriak hau dio: *"Bizilekua" kontzeptu juridikoa, "helbidea" eta "egonaldia" kontzeptuen familia berean ageri da. Alde batetik, "bizilekua" izena, izen hori erabiltzen duten legegintza-adarretan, sarritan hainbat izenlagunekin ageri da: "ohiko bizilekua", "aldi baterako bizilekua", "bizileku iraunkorra" edo "iraupen luzeko bizilekua". Gainera, ohartarazi behar da bizilekua bere modalitate batzuetan eta besteen zehaztean hainbat maila ezarri ahal direla, malgu samarrak diren mailak, zenbait atalase edo irizpide aplikatuta, eta hain zuzen ere, atalase edo irizpide horiek ez dira berberak ordenamenduaren adar edo sektore guztietan (...) Dena dela, zuzenbidearen sektore edo adar horietan guztietan kontzeptuaren zehaztapen batzuetan eta besteetan gogoeta berbera dagoela ikus dezakegu: Bizilekua izateak leku batean eta gutxienez hamabost egunez fisikoki kokatuta egotea dakar (...) Araupetze-hutsune hori konpontzeko, hala ere, interpretazio sistematikoa erabil daiteke, eta hala atzerriartasun legeriak gizarte ordenamenduaren eskakizunen arabera nahikoa doituta dagoen mugaketa ematen du. Atzerriartasunari buruzko lege organikoaren 31.1 artikulua dioenez, aldi baterako bizilekua egonalditik bereizten da, eta leku berean 90 egun ematen direnetik hasten da zenbatzen. Eta, lehenago esan den bezala, atalase hori Erkidegoaren 883/2004 Erregelamenduaren (LCEur 2004, 2229 eta LCEur 2007, 1369) 64.1.c) artikuluan langabeziagatik babesa kontserbatzeko muga arrunt gisa erabiltzen den berbera da ia-ia. Izan ere, erregelamendu horretan, prestazioa ordaintzen duen estatu kidearen lurraldetik kanpo hiru hilabeteko egonaldia aipatzen da (...)"*.

Beraz, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak eta gure erkidegoko etxebizitzari buruzko araudiak onartu egiten dute egiazko bizilekua definitzen duten irizpide diferente batzuk daudela, eremua kontuan hartuta, eta alde horretatik, orokorrean, bizilekua ezin da galdu atzerrian hiru hilabete baino gutxiagoko egonaldiak egiteagatik.

Beraz, gure iritziz, kasu honetan ez da galdu egiazko bizilekua. Lanbideri lehenago beste batzuetan azaldu diogunez, gure ustez baliteke urratu izana DBE aldi horretan onartu zeneko xedeetarako erabiltzearen betebeharra, ondasunak onuradunaren egoera ekonomikoa ez larriagotzeko administratzearen betebeharra, eta horregatik, baliteke, akaso, prestazioaren ordainketa etetea atzerrian dagoen denboran, arrazoi horietako batengatik. Kasu horregatik egiazko bizilekua galdu dela epaitzea, kontzeptuaren interpretazio murriztailegia izan liteke; gainera, esan behar da orokorrean irteera horien eragina ez zaiela behar bezala jakinarazten DBEren onuradunei, eta horrenbestez, prestazioa arautzen duen araudian aurreikusten ez den iraungipen - edo ukapen-arrazoia da, legezko oinarri gabekoa, eta horregatik, prestazioaren eskatzaile edo onuradunek oso eragin negatiboak jasaten dituzte. Gure ustez garrantzitsua da adieraztea hala jokatu ahal izateko horrelako legezko oinarri ez dagoela. 18/2008 Legearen 16b) artikulua aipamenean argi eta garbi ez daukate oinarririk. Izan ere, gorago azaldu den bezala, manuak ez du ezer ere aipatzen irizpide horiei buruz, baldintza hori galtzeari dagokionez (eta azaldu den bezala, pertsonen egoera hiru urteko atzeraeraginekin aztertu behar denik ere ez da aipatzen).



Kasu honetan, gainera, kontuan hartu behar da atzerrirako irteerak DBEren eskumena foru aldundiena eta udalena zen garaian gertatu zirela. Hain zuzen ere, erakunde horiek ez zioten jarraitzen egiazko bizilekua galtzearen irizpide horri, eta horregatik, esan den bezala, Lanbide, eskubide bat murrizten duen irizpidea aplikatzen ariko litzateke, atzeraeraginekin. Esan den bezala, halaber, ezin da onartu, Lanbidek guri esatea *Aldundiari egokituko zitzaioela, jada, gertakari horregatik etendura*.

Gure ustez, atzerrirako irteerekin (behin hiru hilabetetik beherako iraupena dutenekin) kontuz ibiltzeko eskatu ahal zaie DBEren titularrei, errenta hori onartu zirenez bestelako helburu batzuetarako erabili ez dezaten, edo euren egoera ekonomikoa okertu ez dezaten (are gehiago, administrazioa haiekin harremanetan jartzen saiatzen denean aurki ditzaten), baina atzerrira irteteagatik inolaz ere ezin izango litzateke gertatu prestazioa zuzenean "suntziaraztea" egiazko bizilekua galtzearen zioz.

Azken alderdi horri dagokionez, azpimarratu behar da prestazioa egitatezko bidetik suntsiarazi dela, entzunaldirako izapidearen deialdia egiteko idazkirik bidali gabe. Horrela, urratu egingo litzateke 147/2010 Dekretuaren 53.2 artikulua edukia: *"Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura hasitakoan, ofiziozko prozedura bat bada, hasiera eman zaiola jakinaraziko zaio titularrari adierazitako bizilekura igorrita, prozedurak oinarri dituen arrazoiak eta izan ditzakeen ondorio ekonomikoak adieraziz, baita ebazteko eta jakinarazteko epea eta 55. artikuluan ezarritako epean esanbidezko ebazpenik ezak izan ditzakeen ondorioak ere, eta hori guztia interesdunek egokituz jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten"*, eta hala, gure ustez, argi eta garbi babesgabetasun egoera sortuko litzateke.

3

Ondorioz, Lanbidek DBErako eskubidea suntsiarazi du horretarako prozedura egokiari jarraitu gabe, kausa zehaztu gabe (gogora ekarri behar da honako hau: gure eskariari erantzuteko lehenengo idazkian azaldu zigitenez, suntsiarazpenaren kasua atzerrirako irteera izan zen, eta bigarren idazkiak dioenez, aldez, suntsiarazpenaren kausa eten bi izan ziren, baina lehenengo etenari buruz ez zaigu ezer ere azaltzen) eta eskubideak murrizten dituen irizpide bat atzeraeraginez eta legezko oinarririk gabe aplikatuz. Hala, baliteke DBEren suntsiarazpena deuseza izatea 30/1992 Legearen 62. artikuluko 1.e) eta 2. puntuak aplikatuz.

Horrenbestez, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

## GOMENDIOA

Erreklamaziogilearen DBEren suntsiarazpena ondoriorik gabe uztea.

Orokorrean, berriro aztertzea DBEren titularrek estatutik hilabete baino epe luzeagoetan irteteagatik egiazko bizilekua galtzea eragiten duen irizpidea.